



ED-2021

4.maila

DBHko 2.maila

Bigarren Hezkuntzako irakasleen formazioa_ED21_HLBP_egokitzapenak

Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 28an



Hezkuntza-laguntzako berariazko premia (HLBP) duten ikasleak

a) Hezkuntza Premia Bereziak (HPB)

- NCE globala
- Arloko NCEa
- Berariazko baliabideak

b) Ikaskuntza-zailtasun espezifikoak

- Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzarekin lotutakoak,
- Kalkuluaren ikaskuntzari lotutakoak,
- Hizkuntzaren berariazko nahasmenduari lotutakoak
- Arreta-defizitaren ondoriozko nahasmenduari, hiperaktibitatearekin edo gabe,
- Adimen-gaitasun handiak

*Kontuan hartutako ikasleak HLBPeko ikasleak biltzeko eta antolatzeko prozedura berria bidez jasotakoak dira, 2020ko uztailaren 10eko Ebazpenak ezartzen duenaren arabera.



a) Hezkuntza Premia Bereziak (HPB)

- NCE globala
- Arloko NCEa
- Berriazko laguntzak

- ✓ *Ebaluazio diagnostikoaren araudiak adierazten duen moduan, eta nazioarteko ebaluazio guztietan ohikoa den moduan, zenbait ikaslek lortutako puntuazioa ez da kontuan hartu Euskadiko, ikastetxeetako eta taldeetako batez besteko puntuazioa kalkulatzeko garaian. NCE globala denean inongo kompetentziako batez bestekoan ez da kontuan hartuko eta, Arloko NCE kasuan soilik NCEa duen kompetentzian.*
- ✓ *ED21 Ebazpena: “NCE duen ikasleren bat eskolatuta dagoen taldeetan, pertsonaren baten laguntza behar badu (interpretatea edo zeinu-hizkuntzako irakaslea, hezkuntza-laguntzako aditua, IBT/CRIko langile teknikoa), probak egin bitartean bertan egon ahal izango da, ikastetxeak esleitutako irakasleaz gain. Laguntzaile horrek bere funtzioa garatzean ezagutuko dituen probetako edukiaren inguruan isilpekotasun-konpromisoa sinatzeko betebeharra izango du”.*
- ✓ *Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleek proba egokitua izango dute (edukian, formatuan eta aplikazio sisteman). Horretarako, ONCE eta IBT/CRIko teknikarien iradokizunak kontuan hartu dira.*
- ✓ *Probetako bideo eta audioen soinua egokia da entzumen-urritasuna duten ikasleentzat.*



b) Ikaskuntza-zailtasun espezifikoak

- Irakurketaren eta idazketaren ikaskuntzarekin lotutakoak,
- Kalkuluaren ikaskuntzari lotutakoak,
- Hizkuntzaren berariazko nahasmenduari lotutakoak
- Arreta-defizitaren ondoriozko nahasmenduari, hiperaktibitatearekin edo gabe,

**Egun batean hiru gaitasun ebaluatzen dituen Diagnostiko Ebaluazioaren ezaugarriak direla eta, aplikazio-denbora luzatzeak ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzako gehiegizko esfortzua suposatuko luke. Ebaluazio diagnostikoan gaitasun bakoitzari emandako denbora luzatzeak eguneko guztizko denbora nabarmen handitzea ekarriko luke.*

Horrexegatik:

- ✓ *Ikaskuntza-zailtasun espezifikoa duten ikasleei datuen analisirako soilik kontuan hartuko dira konpetentzia bakoitzean ikasleak hasieratik azken galderaraino erantzun dituen galderak. Beraz, bere probaren analisia ikasleari egokituta egongo da. Hortaz, ikaslek erantzun duen azken galderatik proba amaitu arte, erantzun gabeko galderak ez dira kontuan hartuko.*
- ✓ *Gainera, **kalkuluaren ikaskuntzarekin lotutako zailtasun** espezifikoak dituzten ikasleei **kalkulu mentaleko atalean** soilik kontuan hartuko zaizkie hasieratik azken galdera arte erantzundako itemak.*

ED-2021

Mila esker!